C/Prim nº 35 bajo
20006-Donostia-San Sebastián
Tfno 943 27 18 66
cvc@vascodecamping.org

# Mendi bete diru - Montañas de dinero

**"Mendi Bete Diru, munduari bira hirurogeita sei menditan zehar".**

Mendiak mugarri esanguratsuak dira Lurra erliebean eta, ingurunearekiko erakusten duten nagusitasunaren ondorioz, erreferentzia saihestezinak dira paisaiari begira jartzen garenean.

Mendi horietako asko eta asko identitate-sinbolo bihurtu dira beren herrialdeetan. Horixe da, esaterako, Everest, Cervino, Mont Blanc, Ararat, Kilimanjaro eta beste mendi askoren kasua.

Notafilia izenez ezagutzen den bildumazaletasunaren adarra oinarri hartuta, munduko mendietan barrena bidai bat egiteko proposamena egin nahi dizuegu hirurogeita sei herrialdetan jaulkitako bankuko billeteen bidez.

"Mendi bete diru" Sabadellgo Servei General d´Informació de Muntanya erakundearen eta EMMOA-Euskal Mendizaletasunaren Museoaren produkzio bat da, Internacional Mountain Museums Alliance-ren esparruan.

